

AIARAN EUSKARAZ BIZI NAHI DUGU - GINKANA

HELBURUA

** Pista batzuen bidez Aiarako toki zehatz batzuk aurkitzea edota objektu bat topatzea.*

GINKANAren irabazlea izango da, epe barruan bidalitako erantzunengatik puntu gehien lortzen dituen pertsona.

FROGA

** Urriaren 14an azalpenak zabalduko ditugu*

** Proba urriaren 15ean hasiko da eta azaroaren 20an bukatuko da, gaueko 12:00etan.*

** Pistak zabaltzeko Udalaren difusio taldea erabiliko dugu, Etxaurren Ikastolako IGERen watxapa, eta baita Aiaraldea gaur ere.*

** Partehartzaileak, lehenengo pista jaso bezain pronto, objektua edo lekua bilatzen has daitezke*

** Partehartzaileak, behin objektua edo tokia aurkituta, argazki-selfie bat bidali beharko du hogekitalau@gmail.com helbidera, bere izen abizenekin.*

PUNTUAKETA

* Epe barruan, hau da, pista bat zabaltzen denetik hurrengo zabaldu arte, jasotako erantzun zuzenek honelako puntuazioa izango dute:

Jasotako lehenengo erantzun zuzenak --> 10 puntu

Bigarrenak --> 8 puntu

Hirugarrenak --> 6 puntu

Epe barruan jasotako gainerako erantzunek hiruna puntu batuko dituzte.

Epez kanpo, baina azaroaren 20a baino lehen erantzun zuzenak bidaltzen dituztenek puntu bat lortuko dute erantzun zuzen bakoitzeko.

SARIA

* Bertako produktuen saski bat

* Igande Arratsaldeak familian programa barruan banatuko dugu, Azaroaren 21ean